

Polarizazioaren amildegian

JON GONZÁLEZ DE REPARAZ

Kazetaria

Azken urteotan, hainbat polarizazio-gertakariren lekuko izan gara, bai nazioartean, bai gertuko testuinguruan, eta horiek guztiek polarizazioa debate publikoan kokatu dute. Hain zuzen ere, Gaztelania Urgentearen Fundazioak (Fundéu) *polarizazio* aukeratu zuen 2023ko hitza, batetik bere bilakaeragatik, eta, bestetik hedabideetan izan duen presentziagatik. Ernegazioa, blokeo politikoa, sumingarritasuna, tentsioa, zatiketa soziala eta indarkeria, besteak beste, polarizazioaren isla dira; eta, adituen irudikoz, politika, komunikabideak, sare sozialak, baita herritarrak ere, horren pizgarriak dira. Hartan-horretan, ez ote gara ari suarekin jolasean ondorioak neurtu gabe?



Polarizazioaren fenomenoa oso zabal da, eta zenbait eremu ditu aztergai. Zientzia politikoaren arabera, polarizazio tematikoa gertatzen da gizarte batean gai garrantzitsu bati buruz iritzi kontrajarriak edo antagonikoak daudenean; esate baterako, azpiegitura baten inguruan aldeko eta kontrako jarrera hermetikoak, edota erabaki bat hartzen denean ziztu bizian agertzen diren defendatzaile eta aurkari sutsuak. Oro har, urruneko posizio kontrajarri horiek arlo bakar batean gertatzen badira, ez dute ondorio sozial handirik izaten.

Polarizazio afektiboa, aldiz, arriskutsua izan daiteke, eta izaera emozionalagoa edo psikologikoagoa du. Gizartearen zati batek bere kolektibo ideologikoarekin bat egiten ez duen beste talde batekiko sentitzen duen etsaitasuna edo gorrotoa da. Gertatzen da pertsona bat talde batekin identifikatzen denean eta horren balorazio oso positiboa egiten duenean; eta, aldiz, beste pertsona batzuk beste talde bateko kideztat jotzen dituenan, multzo horren balorazio negatiboa eginez eta sarritan estereotipoetara murriztuz. Agerikoa denez, polarizazio mota honek gizartea zatikatzen du aurkako posizioak dituzten kolektiboen arabera, eta ez du uzten puntu ertaineko edo kolore grisentzako tarterik. Normalean, talde bakoitzak kontrako kolektiboaren jarrera ukatzen du, eta konfrontazio- eta indarkeria-egoerak suertatzen dira askotan. Gainera, gai baten inguruan identitateak eratzen badira eta horiek beste esparru batzuetara hedatzen badira, arazoak sor daitezke. Halaber, ohikoa da zenbait gaitan dauden desberdintasunak apurka-apurka lerrokatzea edo biltzea gizartea zatitzen duen gai bakar baten inguruan. Adibidez, AEBn egindako ikerketek adierazi dutenez, pertsona batek abortuaren inguruan zer pentsatzen duen baldin badakigu, gizarteko beste hainbat aferen inguruan

duen iritzia ondoriozta daiteke, besteak beste, armen inguruan edota klima-alaketaren inguruan. Hortaz, pertsona hori koka dezakegu gizarteko talde edo sektore jakin batean, eta, zehazki, beste baten aurka.

Dena den, jakin badakigu ezin gara xalotasunean erori, eta ezin dugula espero pertsona guztiek modu berean pentsatzea eta jokatzeko. Izan ere, iritzi-aniztasuna aberasgarria da edozein gizartetan, eta, beraz, desiragarria da beste pertsona batzuen ikuspegiaren aurrean tolerantzia izatea, baita elkarrizketak sortzea ere akordioak eta adostasunak lortze aldera, esaterako. Ildo horretan, Míriam Juan-Torres Kaliforniako Berkeley Unibertsitateko *Democracy & Belonging* programaren ikerketa zuzendariak *Administrazioa euskaraz* aldizkarirako aztertu duenez, «gatazka- edo desadostasun-maila bat normala da gizarte demokratiko batean, eta, neurri batean, saihestezina da, baina garrantzitsua da desadostasuna eta polarizazioa ez nahastea».

Gu vs haiek

Pertsona guztiok identitate anitzak ditugu, eta gizakiak berezkoa du talde batekin identifikatzeko beharra. Taldeak berez eraikuntza sozialak diren heinean, kanpoko kolektibo bat haute-mateko moduak maiz baldintzatzen du multzo batekin identifikatzea. Horren ondorioz, talde baten identitatea beste pertsona baten aurkakotasunean edo pertzepzioan oinarrituta eraikitzen da; eta beste lagun edo multzo bati buruz dugun irudia bereizketa soil bat izan daiteke, edo irudi negatibo bat eta desberdintasun negatiboez josia. Hortaz, Juan-Torresek ohartarazi duenez, «argi izan behar dugu ez dela batere naturala aurkaritza ezberdintasunen arabera eraikitzea, diferentzia simple bat banaketa- edo diskriminazio-ardatz bihurtu daiteke-eta».

Are gehiago, desberdintasun garrantzitsuetan oinarritutako bloke-banaketa honen ondorioz, talde bateko pertsona batek bere nortasunari buruzko informazio edo iritzi bat jasotzen badu kontrako talde bateko beste pertsona baten eskutik, ez du edukiaren arabera epaituko. Zuzenean gutxietsiko du edo mesfidati azalduko da igorlea nor den edo diferentzia zein den kontuan hartuta.

Gainera, Juan-Torresen arabera, sailkapen psikologikoko prozesu horretan pertsona, elite, lider politiko edo komunikabide batzuk errealitate sozialaren interpretatzaile dira. Hau da, kolektiboa eratzen eta taldea bera zein mehatxuak berriro definitzen laguntzen dute. Adibidez, 2015eko migrazio-krisiaren ondorioz, migrazioaren fenomeno nahita birdefinitu zuten mehatxugisa; ordea, Ukrainako gerra dela eta, hango biztanleak gurera iritsi direnean, europar elkartasun gisa aurkeztu zaigu. Interpretazioaren zantzua, beraz, agerikoa da.

«Zenbait ikerketa akademikok iradokitzen dute Espainia dela European azkarren polarizatzen ari den herrialdeetako bat»

MÍRIAM JUAN-TORRES

«Politika egiteko modu honen lehen biktima arrazionaltasuna, argudio komplexuen azterketa eta pentsamendu pausatua da»

LUIS MILLER

Politikari helduta, ikertzailearen aburuz, «polarizazioa elite politikoek boterea lortzeko, horri eusteko edo oposizioaren zilegitasuna moralki murrizteko erabiltzen duten estrategia da», eta oso eraginkorra dela dio. Izan ere, pertsonak banatzen ditu eta talde-identitateak aktibatzen ditu, adibidez, elkarren aurka mobilizatzeko edo botoak lortzeko. Hala ere, ondorioak «suntsitzaileak» izan daitezke; hortaz, gogoratu du egungo gizarte gehienetan gero eta handiagoa den polarizazio afektiboaz kezkatzeko arrazoiak egon badaudela.

Aurkari politikoen arteko mesfidantzek eta arbuioek erakundeak geldi edo blokea ditzakete, gaizki gobernatzea errazten duen iritzi-giroa sortzen dute, printzipio demokratikoak higitzen dituzte, eta oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen. Halaber, herritarren arteko lankidetzak, erakundeekiko konfiantza eta gobernuen zilegitasuna hondatzen ditu, eta erronka komunei aurre egiteko taldeen arteko beharrezkoak diren adostasunak zailtzen ditu. Bestalde, testuinguru polarizatu batean, «herritarrek errazago onartzen dituzte beren taldeko buruen arauhausteak, eta, orokorrean, polarizazioa oso eremu emankorra da eskuin muturraren gorakadarako (eta estrategikoki etekina atertzen dio, gainera)», adierazi du Juan-Torresek. Horren erakusle da AEBn egindako esperimentu bat: hauteskunde-barruti askotan, herritarren

gehiengoa prest egongo litzateke beren burua identifikatzen duen hautagaiak babesteko, nahiz eta horiek printzipio demokratiko batzuk urratzen dituzten, horrekin aurkari politikoak hauteskundeak ez irabaztea lortzen badute.

Polarizazioa gurean

Luis Miller Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Goreneko (CSIC) Politika eta Ondasun Publikoen Institutuko soziologo eta zientzialariaren arabera, Espainian, 2000. urteaz geroztik, hauteskundealdia bakoitzean boto-emaileak muturretara ari dira mugitzen, beste herrialde askotan bezala. «Gaur egun, Espainiako herritarrak duela hamarkada batzuk baino banatuago daude politikoki, eta herrialde garatu gehienetan patroia bera jarraitzen dute». Zientzialariaren arabera, Espainiak zatiketa politikoa tradizionalki banatuagoak izan diren herrialdeak aurreratu ditu, eta, egun, Espainiako herritarrak gero eta bloke ideologiko trinkoagoetan banatuta daude. «Horrek konfrontaziorako behar den haztegia sortzen du, lehenik elite politikoen artean, eta, gero, ezerk ekiditen ez badu, herritarren artean», dio.

Euskadiri dagokionez, Millerrek nabarmendu du polarizazio politikoa mendebaldeko gainerako demokrazien eredu berak jarraitzen duela. «Hala ere, azterketek erakusten dute polarizazio-maila zertxobait txikiagoa dela Estatuko beste lurralde batzuekin alderatuta».

Millerren hitzetan, herritarren %35ak uste du politika dela Espainiaren arazo nagusia, 2024ko apirilko Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) hileko barometroak erakutsi duenez. Hala ere, gaineratu du hori ez dela gertatzen Euskadin; izan ere, 2023ko neguko DeustuBarometroari erreparatuta, euskal herritarren %12k soilik hartzen du politika arazo nagusitzat. «Herritarrek politikarekiko duten kezka lotuta dago eztabaida publikoaren polarizazioarekin eta ernegazioarekin. Herritarrek alderdien arteko akordioak eskatzen dituzte, eta hori ez da posible blokeoak sortzen badira. Euskadin zeharkako adostasun horiek gertatu dira, eta horregatik politika ez da hain arazo larritzat hartzen», adierazi du zientzialariak. Eta zer egin dezakegu fenomeno horren aurrean? Erantzukizun partekatua, baina desberdina, dugu polarizazioari aurre egiteko. Juan-Torresek dioen bezala, komunitate-sentsazioa garrantzitsua da; beraz, batzen gaituen proiektu komun bat izan behar dugu. «Gure gizartean gatazka beti presente egon den arren, historia kolaborazioan eta lankidetzan ere oinarrituta dago. Nahiz eta pertsona askok estrategia polarizatzaileak edo diskurtso autoritarioak sustatzen dituzten, beste askok ez dute modu berean erreakzionatzen. Badaude polarizazioa gainditzeko espazioak, historiako beste une batzuetan egin den moduan», gogoratu du.



DANIEL INNERARITY

Filosofia Politikoan katedraduna, Ikerbasqueko ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Florentziako Europako Institutuko Adimen Artifizial eta Demokrazia Katedraren titularra

«Gizakiok gehiago jotzen dugu zentraltasunera muturretara baino»

► **Gizartea polarizatuta al dago?**

Polarizazioaren diskurtsoak sakonki banatutako gizarte bat deskribatzen du, eta han jarrera moderatuak desagertzen eta muturrak hazten dira. Zenbait antagonismo areagotu dira, baina horrek ez du esan nahi gizarte-bloke egonkorrak eta zurrunik sortu direnik, porositaterik gabekoak, ezta horien artean konpromisoak lortzea ezinezkoa denik ere. Gure demokrazietan badaude liskar handiak, histeria, mespretxua..., baina polarizaziorik ez dago, ez behintzat aipatu ohi den dimentsioan edo kategorizazioarekin. Gizartearen polarizazioa ezin da analisi politikoaren topiko bihurtu.

Gehiegizko garrantzia ematen al diogu fenomeno honi?

Pertsona batzuek polarizazioan gehiegi insistitzen dute, eta akordioaren errealtatea gutxiesten dute. Hala ere, akordio horiek uste duguna baino hedatuago daude. Polarizazioaren izaera eta irismena ondo mugatzeak gizarte demokratiko baten gatazka motak hobeto islatzen ditu, eta, agian, horiek murrizten eta hobeto kudeatzen ahalbidetuko digu. Orainsu etsaitasuna eta zatiketa areagotu da eremu publikoan, baina ez dago polarizaziorik gizarte demokratikoetan, baldin eta fenomeno hori honela ulertzen badugu: interesen eta identitateen arabera talde sozialen zatiketa eragiten duten gatazka egonkorren eta iraunkorren konstelazioak.

Orduan, zergatik daude hain ideologia kontrajarriak?

Hautemandako edo sentitutako polarizazioa benetakoa baino indartsuagoa da. Sare sozialen burbuila jakin batzuetan mugitzen denak pentsa dezake ezeztatzaile kulturalak eta ukatzaileek soilik osatzen dutela gizartea, baina zentraltasuna ez da desagertzen eztabaida bereziki biziak dituzten gizarteetan. Bazterretan sortzen den politizazioak gatazkaren dinamika osoari eragiten dio. Polarizazioan bereziki interesatuta dauden talde txikiak erradikalizatzen dira, eta hori lortzeko temati lan egiten dute. Hortaz, polarizazioa baino gehiago, bazter erradikalizatuak ditugu. Horien komunikazio politikoa ez da gizartearen adierazgarri, baina arreta publiko handiagoa lortzen dute egiten duten zaratari esker eta komunikabideen laguntza traketsaren ondorioz.

Baina polarizazioaren diskurtsoa gehiegi erabiltzen dela esateak ez du adierazi nahi muturrekoen kopurua handitu ez denik edo gatazka larririk ez dagoenik. Muturreko politizazio zaratatsuak eragile politiko jakin batzuen estrategia bati erantzuten dio gehienbat, eta ez errealtate sozial bati. Hori da bazter erradikalizatuen espezialitatea, eta orokorrean alderdiena ere bai, ez bai-

tiete arazo garrantzitsuei erreparatzen, baizik eta lehiakideengandik eta hautesleengandik gehien bereizten dituzten arloei. Erabilgarritasun-kalkulu sinpleagatik azpimarratzen dute gehiago bereizten dituen batzen dituen baino. Polarizazio politikoa ez da gizarte polarizatu baten ondorioa, baizik eta horren sortzailea.

Polarizazioak estrategia bati erantzuten dio?

Bai, zentralitatean konbergentziarik ez gertatzea nahi dutenen estrategia da, hain zuzen ere. Bazterreko zaratak xurgatzeari uzten diogunean ikusten dugu iritzi-desberdintasunek ez dutela fronte ideologiko koherentea osatzen, eta ez datozela bat gizarte-egitura sendoekin. Zentralitate handia dago oraindik, eta gizakiok joera handiagoa dugu horretara muturretara baino. Ohiko kanpainak eskuliburuak polarizatu behar dela dio, baina gizarteak mezu positiboen eta integratzaileen itzaropena du. Gainera, erradikalitasuna ez da hain erakargarria gizartearentzat orokorrean, eta, beraz, moderazioaren bidez haztea posible da. Jakina, gizarte demokratikoetan gatazkak daude, batzuk oso larriak, eta horiek konpontzeko modurik ez balego bezala aurkezten dira. Baina gatazka ez da nahitaez desintegratzailea, gizarte-kohesioa indartu dezake.

Kudeaketa gatazkaren gakoa al da?

Ez dago demokraziarik pluralismorik gabe, eta aniztasun horrek dimentsio gatazkatsua du. Adostasuna eta gatazka estu eta konplexuki lotuta daude. Alderdi politikoaren esku dago, neurri handi batean, egoerak zentzu konbergente edo dibergentean eboluzionatzea, afektu kolektiboak kudeatzea zubi iragangarriak egon daitezen konpromiso onargarriak aurkitzeko, edo joera desintegratzaileak indartzea. Ongizate-estatua sorrarazi zuen gerraosteko ituna uste duguna baino gogorragoa da; desberdintasun gehiago daude politiken eremuan balioen esparruan baino. ●



TONI AIRA FOX

Kazetaria eta Pompeu Fabra
Barcelona School of Management
Unibertsitateko komunikazio
politiko eta instituzionaleko
irakaslea

«Izaki emozionalak
gara; lehenik hunkitu
egiten gara, eta gero
pentsatzen dugu»

► Polarizazioa estrategia politiko bat al da?

Komunikabideek eta politikak polarizatzen jolasten dute, eta horretarako egungo gizartean mamitzen dena baliatzen dute. Gainera, gizarteak entretenimendura jotzen du, eta azalderian geratu ohi da. Horretarako, komunikazio politiko eta publizitate-hizkuntza hiru elementu hauetan oinarritzen dira: sinplifikazioa, pertsonalizazioa eta inpaktu emozionala; hor jartzen dugu arreta pertsonok (edo horretara ohitu gaituzte). Beraz, komunikatu eta entzuleengana iritsi nahi dutenek mekanismo horiekin jolasten dute, baita sustatu ere; beraz, bai, estrategia bat izan daiteke.

Hala ere, hiru elementuok ez dira beti txarrak. Adibidez, sinplifikatu daiteke banalizatzeko, edo zerbait errazago

ulertzeko. Pertsonalizatu daiteke pertsona publiko bat iraintzeko, edo gizakia balioesteko. Azkenik, komunikatu dezakegu emozioak neurritz kanpo erabiliz eta emozio negatiboak lehenetsiz edo, pertsonak garen heinean, horiek neurritz erabili.

Nola erabili ondo hiru elementu horiek?

Dosi kontua da: sendagai baten neurri egokiak senda zaitzake, baina gaindosi batek hil. Hori da diskurtso politikoarekin egiten ari dena gure ingurune demokratizien zati handi batean. Ezin gara diskurtso emozionaletik aldendu, baina bere neurrian eta tokian jarri behar da. Dosiarekin asmatzea da sekretua benetan merezi duen diskurtsoarekin jendearengana iristeko, eta ez bakarrik talka-mezuen edota diskurtso negatibo bitartez.

Eta zein da emozioen eta polarizazioaren arteko lotura?

Emozioak jendearekin konektatzeko erabiltzen dira. Izaki emozionalak gara; lehenik hunkitu egiten gara, eta gero pensatzen dugu. Lehenengo inpresioa zentzumenen eremutik pasatzen da: gure garunaren % 90 zentzumen-arlokoa da; gero, zati txiki bat iragazki arrazionaletik igarotzen da. Beraz, emozioak garrantzitsuak dira alde aurreko jarrera bat sortzeko. Arazoa da emozio negatiboek eramaten dutela errefusa eta eszeptizismoa izatera jendeak ezarritakoaren aurrean, bereziki bata bestearen atzetik bizi izandako kateatutako krisien testuinguruan. Hori dela eta, erantzun edo oposizio sentsazioa aktibatzen da, eta horrekin jolasten da errudunak bilatzeko, neurriak agintzeko...

Azken finean, emozioak ondo edo gaizki erabili daitezke. Polarizatzeko erraza da emozioen gaindosi ematea eta emozio negatiboak erabiltzea. Hala ere, positiboak ere beharrezkoak dira, eta horiekin jolasteak ere ekintzara mugiarazten gaitu.

Nola eragiten dute desinformazioak eta fake newsek polarizazioan?

Desinformazioak gizartean dagoeneko gertatzen diren fenomenoak sustatzen ditu. Adibidez, bizkortzen du sentsoriala, azalekoa edo sinplea denaren bidez jendea errealitatera edo ingurunera hurbiltzea, eta alde aurretik pentsatutako ideiak ere berresten ditu. Milan Kunderak esaten zuen homo sentimental garena, eta hala da. Orain, inoiz baino gehiago dugu prestakuntzara eta informaziora sarbidea, baina emozioaren bidez arrazoiari heltzeko joera handiagoa dugu. Polarizatzen gaituzten bulkaden bidez mugitzen gara, eta horiek lubakietan sartzen gaituzte, lehenik mentalak, gero ideologikoak eta, azkenik, fisikoak.

Zer rol dute komunikabideek?

Intenbidearen parte izan daitezke (batzuk badira), baina arazoa ere izan daitezke. Hasiera batean, komunikabideek kontrolatzeko funtzioa izan zuten, adibidez, exekutiboaren, legegilearen eta judizialaren aurrean; horregatik deitu zaie «laugarren boterea». Hala ere, gaur egun, funtzio hori aldatu egin da: entretenimendurako eragileak eta aktore politikoak dira. Horregatik, susta dezakete hedabideek egun bizi garen etengabeko talka-unea eta Christian Salmonen aipatzen zuen «liskarren garaia». Komunikabide batzuk konponbidearen parte izaten saiatzen dira, baina beren audientziak txikiagoak dira lubakian daudenen audientziekin alderatuta.

Polarizazioak elkarbizitza eta demokrazia kaltetzen ditu?

Osasungarria da usteak zein iritziak kontrastatzea, baita demokrazian ideiak eta diskurtsoak kontrajartzea ere, baina polarizazioa muturrera eramatea kaltegarria da sistema horrentzat; orain politika lubakien gerra gisa ulertzen da. Demokrazia ez da soilik liskarra, eta polarizazioarekin dena hor amaitzen dela dirudi. ●



MAIALEN LIZARRALDE

Baketik erakundeko kidea

«Gizatalde bat etsai bihurtzen dugunean, gizatasuna ezabatzen diogu, eta haren aurka indarkeria erabiltzeak zilegitasun soziala hartzen du»

Zein da polarizazioaren mekanismoa?

Gizakiok joera dugu jendea «gu» (barnetaldea) eta «haiek» (kanpotaldea) gisa taldekatzeko. Arazoa dator tentsioa sortzen duten beste aldagai batzuk sartzen direnean jokoan: norbere bizimoldea edo identitatea desagertzeko beldurra, norgehiagoka logikak... Giro horretan, erraza da jarrera suntsitzaileek elkarbizitza kaltetzea eta polarizazio toxikoari bidea ematea. «Gu» eta «haiek» era zorrotzean ezberdindu eta aurrez aurre jartzen dira norgehiagokan. Nor bere taldearekiko homogeneousazio-pertzepzioa eta bertako kideen aldeko faboritismoa gertatu ohi dira, barnetaldea kategoriatik positiboz josiz eta kanpotaldea negatiboz karikatuztatuz; eta beharrezkotzat jotzen da «gu» eta «haiek» bereizten dituen distantzia indartzea eta areagotzea. Hala, polarizatzean norbait talde batekin identifikatzen da, eta arazo bat antzemateko kolektibo horren modua bere egiten du, eta aurkako jarrera eta hori sostengatzen duten pertsonak errefusatu.

Nola sumatu gizarte bat polarizatu dagoela?

Etsaitasun logikei jarri behar diegu arreta: gizatalde bat etsai bihurtzen dugunean, gizatasuna ezabatzen diogu, eta haren aurka indarkeria erabiltzeak zilegitasun soziala hartzen du. «Bestea»-ren irudi desitxuratua sortzen da; esaterako, etiketa sinpleak erabiltzen dira gizatalde anitz eta konplexuak deskribatzeko, eta geure taldeak, aldiz, konplexutasunetik begiratzen ditugu. «Besteak» beti dira basatiak, sinpleak, oldarkorak, irrazionalak...; «gu», berriz, askotarikoak gara, eta, historia, inguruabar eta kultura konplexu eta aberatsak ditugu. Maila pertsonalean ere gertatzen da hori: gure jarrera suntsitzaileak egoeraren arabera dira (egun txarra, besteen eragina...); besteak, aldiz, beren nortasun osoaren ardatz eta adierazle dira. Hizkuntza belikoa erabiltzea edo «nirekin ala nire kontra» bezalako mezuak ere polarizazioaren zantzuak dira. Azken finean, norgehiagokaren logikarekin funtzionatzen duten dinamiketan errazagoa da polarizazioa sortzea.

Beraz, gakoren bat bizikidetzazustatzeko?

Esate baterako, gure sinesmenak malgutu; gaitasuna izan iritziak aldatzeko edo eguneratzeko giza duintasunaren iparrorratza erabiliz; eta «haiek» taldean sartzen ditugun pertsonen aurkeeritziak eta epaiak identifikatu. Ildo berean, «gu» taldearekin ere gaitasun kritikoa izan behar dugu, parte garen taldeko kideen iritzi eta ikusmolde guztiak ez ditugulako beti zertan partekatu. Disidentzia neurriren bat onartzen ez duen talde baten parte bagara, adi! Gatazka eta iritzi desberdintasun maila bat izatea osasuntsua da. Beste batzuetan, talde batetik kanpo gertatzeak arriskuan jar dezake oinarritzko beharren bat asetzea, eta, horrek behartuta, geure egiten ditugu ikusmolde suntsitzaileak; hau da, barnetaldearen eragina oso boteretsua da gizakiongan.

Nola kudeatu desadostasunak polarizazioan ez erortzeko?

Gizakien konplexutasunaz ohartzea oso garrantzitsua da, jakin-mina pizten baitugu eta «beste» horiek ulertzeko zubiak sortzera garamatza, eta, ondorioz, sinplifikazioa apurtzen da. Lagungarria da, halaber, beldurrak uxatzea, askotan «beste» horien existentzia gure bizimoldeentzako mehatxua dela sinisten duguetan. Bestalde, desadostasunak kudeatzeko beharrezkoa da deserosotasun maila bat bizitzeko prest egotea, eta gatazka ikaskuntza prozesu gisa hartzea. Gainera, negatibotzat hartzen ditugun emozioz jositako prozesuak izaten dira, eta ez da erraza. Hortik abiatuta, entzuketan oinarritutako elkarrizketa da gakoa. Ariketak kooperatiboa izan behar du, ez norgehiagoka.

Nola desaktibatu jarrera polarizatuak?

Askotan, datu objektiboak eta egiak azaleratzeak ez du funtzionatzen, gizakia bere konplexutasunean ez baita arrazionala beti, baina saiakera egitea beharrezkoa da. Horrez gain, kanpotaldea humanizatzeko bideak jarri behar dira, eta horretarako ez dago aurrez aurreko elkarrizketa zintzoa baino antidoto hoberik. Polarizatuta dagoen pertsona entzuna eta ulertua senti dadila, eta ikus dezala aurrean duen «beste» hori ez dela ez basatia, ez irrazionala, ez eta sinplea ere.

Zein da Baketiken helburua?

Eraldaketa soziala bilatu nahian, gatazken konponbidea bilatzen dugu giza eskubideetan oinarriturik. Bakegintza arloan, gure iragan hurbileko motibazio politikoko indarkeria lantzen dugu. Ezin dugu ahaztu, muturreko polarizazioa bizi izan duen gizartea garela, eta horren ondorioak oraindik bizi-bizirik daude. Elkarrizketa-esparruak sustatzen ditugu maila politikoan eta herritarren artean, elkar ulertzea sustatzen dugu etsaitasun-logikak behingoz gaintu eta etorkizunean errepika ez daitezen. ■